

ZERTARAKO EUSKARA?

Lehenago, «zertarako euskara?», galdetzen bazen, «ezertarako ez», esan nahi zen funtsean, eta galdera hori gehiago zen erantzun bat. Orain, dirudienez, nahi edo, denek nahi dute euskara, eta bai APEk eta UCDEk, bai HBak eta EEak, eta bai PCEk eta PNVEk nahi badute, koinziditzen badute, badu beste sentido bat, zertarako nahi duten galdetzeak.

interesak eta interesak

Herriak eta herriaren presioak ekarri ditu, ez dago dudarik, euskararen alde interesatzerako, politikoak.

Batzuek politikoen zerbait negatibo bezala aipatzen duten hori, berez arras bidezkoa iruditzen zait neuri. Horretarakoxe daude gehienbat politikoak: herriaren esijentziak beren eskuetan hartzeko eta aurrera eramateko. Beharrezkoa zen lehenengo herriak esijentzia altxatzea.

Utz dezagun orain politikoen epelkeria euskararen arloan, praxian: ongi interpretatzen ote dute gure politikoei euskararen interes herritarra, esijentzia horren barren-barrengo sentidoa?

UCDEk bere arrazioak izango ditu eta PNVEk bereak izango ditu, euskararen alde jartzeko. Apenas izango dira berdianak. Kaliforniako linguista bat bere modura kezkatuko da euskararengatik eta oso beste modu batetan Txillardegi. Euskararen aldezkarrizta diferentek daude eta hori ikusiaz hasi beharko da.

oportunismoaren arriskua

Oportunismoa politiko guztien arriskua da: Baina ez ofizioak hori molabait berezkoa duelako, ezta maltzurkeria



politikoaren birtute uztiz klasikoa delako ere. Oportunismoan munduko borondate oberenarekin eta garbienarekin eror daiteke politikoak, errepresentatu uste dituen herriaren interesak eta esijentziak behar bezala ulertzen eta interpretatzen baditu. Munduko zuzenena dabilepakoan, hanka sartzen arituko da.

Politikoen jarrera, euskararen alde, orain, oportunoa da. Beharbada piska bat oportunista ere bai, barne-barnean, eta inork horixe nahi gabe: euskararen arazoari planteamendu kulturalista bat egiten ari bazaizkio, euskarak haiei eskatzen diena, haietxei justu, planteamendu politikoa denean. Politikoei eskatu behar zaiena planteamendu politikoa bait da. Politikoak, Euskal Herriaren horrek daukan sentido bereziarekin.

politika kulturalista

Joan den berrogei edo larogei urte honetan, euskaltzaleak euskararen planteamendu kulturala egiten saiatu dira, politikoengandik independizatuz. Euskaltzaleari bere bidean asko kosta zitzaion politiko (abertza-

le)ari buruz-buru bere status kultural autonomoa irabaztea. «Kulturalistari» bereak eta bost kosta zaio bere lanbidearen legitimazioa erakustea. Euskaltzaleak bere arrazoi bereziak, bere legitimazioa, bere izaera, bere zereginak, bere metodo eta tresna propioak, bere autonomia. Bere planteamenduak, hortakoz. Euskaltzaleak ez du politikorekin identifikatuta agertu nahi, ez politikolari menperatuta aritu nahi.

Baina lotsagarria eta itxuragabea litzateke, politikoak orain euskaltzaleen planteamenduak kopiatzen hastea, hogeita hamar urte atzeratuta gainera, eta ez ur eta ez ardo bihurtuta. Politikolari planteamendu politikoa tokatzen zaizkio.

Izan ere, euskaltzaleak, politikoengandik distantziatu nahita zebilenean ere, ez du bere lanaren barne-barneko sentido politikoa inoiz ahaztu. Aitzitik, kontzientzia politiko guztiz aritu da beti.

Horixe bait da: euskaltzale edo «kulturalisten» atzetik etorri direlako edo, politikoek bere ematen dute gaur inpresioa, euskararen arazoa terreno neutral, despolitizatu edo politikaren gaitetiko batetara eraman nahi dutela. Planteamendu kulturalista neutro bat egin nahi diotela euskararen arazoari.

Euskaltzaleentzat, ordea, euskararen arazoa sekula ez da neutroa izan, nazio arazoa izan da beti. Soziala, politikoa.

Politiko guztiek nahi omen dute orain euskara indartu, bizkortu. Baina zer nahi dute euskararekin, zertarako nahi dute euskara? Zenbait planteamendu kulturalistaz, euskara indio-reserbetan «salbatzea» besterik, ezingo bait da lortu.

JOXE AZURMENDI